



**EUSKADIKO  
GAZTERIAREN  
KONTSEILUA**

**MAIATZAK 17:  
LGTBI+FOBIAREN  
AURKAKO NAZIOARTEKO  
EGUNA**



## **Maiatzak 17: LGTBI+fobiaren aurkako eguna**

### **Zer da LGTBI+fobia?**

LGTBI+ kolektiboko pertsonenganako gorrotoa da LGTBI+fobia. Hau dela eta jada urteak dira pertsona batzuk, pertsona gazteak barne, “LGTBI+misiaz” hitz egitearen garrantzia aldarrikatzen dutela. Azpimarratzearen gorrotoa dela eta ez beldurra kolektibo pertsonen eskubideak urratzen dituzten jarrera eta portaeretara bultzatzen duena.

Gorroto honek bultzatzen du oraindik ere egun LGTBI+fobia kasuak gertatzea zeintzuetan pertsonak erasotzen diren beraien identitateagatik, diren modukoak izateagatik eta maite dituzten pertsonak maitatzeagatik. Hauek ez dutelako bat egiten, ideologia patriarkal batetik, emakume edo gizon bat izan behar denarekin. Horregatik dira Berdintasun lan-arlotik salatzen ditugun indarkeriak.

Hau da EGK-k abiapuntu gisa duen definizioa eta Gaur8 lantaldean parte-hartzen duten gazteen gogoetaren ondorio dena. Egun ez baitago **legedi konkreturik, nahiz eta Estatu mailan badauden Konstituzioan Berdintasun eskubidetik gailen daitezkeen bazterkeria erarik ez daudela dioten artikulua badauden.**

Ondorioz, nahiz eta aurrerago EGK-k dituen proposamenen artean aipatuko dugun, LGTBI+ kolektiboarekiko dagoen gabezia hau azpimarratu beharra dago.

### **Zergatik LGTBI+?**

LGTBI+ formula erabiltzen dugu zeren...

- Nahiz eta ez duen Aniztasun guztia islatzen, **bai jasotzen dituela historikoki era gogorrago batean baztertuak eta erasotuak izan diren kolektiboak.**
- Pertsona intersexualen ikusgaitasuna bultzatzen du, oraindik ere oso ezezaguna dena eta babes gutxien dutenak.
- Ez ditu baztertutako beste Aniztasun eredu batzuk ahazten.

Izan ere, egunero ikusgai bilakatzen dira baztertuak diren pertsonen, baita pertsona gazteen, kolektibo berrien presentzia. “Emakume” eta “gizon” etiketa klasikoei buruzko kritika gehiago sortuz.

## **Zein eragin du existitzen den Aniztasunaren eta emakume eta gizonen arteko Berdintasun errearen egoeraren gainean?**

Indarkeria LGTBI+fobikoa soilik kolektiboko parte diren ongizate pertsonalaren aurkako bazterketa egoera guztietako parterik ikusgaiena eta zuzenena da. **Aniztasuna balore bezala ulertua izan dadin egiteko asko** dagoela erakusten duen isla da.

Gazteek beraien identitatea, izaera eta orientazioa era aske batean ezin adierazi ahal izatea eragiten duen indarkeria mota da. Horrela, 'izan beharko liritekeenarekin' gehiago doazen emakume eta gizon gazteekiko desberdintasun egoera bat sortuz.

Ordea, ez da soilik Aniztasuna mehatxatzen duen indarkeria bat kolektiboa zuzenean erasotzearen, Pertsona gazte guztiengan eragina duen forma bat ere bada, 'izan beharrekoaz ez aldentzeko' mezu gisa erabilgarria baita. Horrela, emakume eta gizon eredu 'desiragarriak' murrizten dira ideologia patriarkalaren arabera.

## **EGKren salaketa publikorako protokoloaren argazkia**

Indarkeria LGTBI+fobikoaren salaketarako protokoloa 2016ko ekainaren 22ko Ezohiko Batzordean lehenengoz onartua eta 2017ko martxoaren 11an egindako 37. Batzar Orokorrean aldatua izan zen. Honek Indarkeria Matxista salatzeko protokoloarekin alderatuz oso erabilera desberdina izan du.

Baina horrek ez du esan nahi derrigorrean kolektiboaren egoera hobetua edo indarkeria bera txikiagoa denik. Kontuan izan behar ditugu emakume eta gizonen arteko Berdintasunaren arloan emandako urteak lanean eta Berdintasuna sustatzeko legeen sorrera, hala nola, egindako sentsibilizazio lana eragina izan duena gazteen artean eta gizartean ere. Hau da salaketa juridiko eta publikoen mailaren desberdintasunaren atzean egon daitekeen faktoreetako bat.

Hain da horrela, Indarkeria LGTBI+fobikoa bost alditan salatu duela EGK-k ia urtebetean; 7 izanik erasotutako izan diren pertsona gazteak guztira. Kontuan izan beharra dago, a priori, LGTBI+ kolektiboa emakume gazteena baino txikiagoa dela. Ondorioz, proportzionaltasun hori kontuan izanik, esan ahal litzateke zifra kezkarria dela.

Kontuan izan behar da ere ia eraso guztiak gertatu zirela pertsona gazteek beraien orientazioa era publiko batean erakutsi ostean eman zirela. Gainera, salatutako erasotako bat 28E (Harrotasunaren Eguna) zela eta Bilbon burututako Manifestazioan bertan gertatu zela.

Zifraz gain, azalpen honen ostean, arreta deitu behar du zein testuinguruetan eman ziren eraso LGTBI+fobikoak: aisi testuinguruetan, leku publikoetan...

## **Indarkeria LGTBI+fobikoari buruzko datuak**

Gure salaketa publikoetan jasotzen dugun eta errealitatearekin gertatzen denarekin kontrastea egiteko balio digun datu bakarra da Espainiako LGTBI+ fobiaren aurkako Behatokiak jasotzen duena. Barne Ministeritzaren Segurtasun Estatuaren Idazkaritzak egindako [“2015ean gertatutako gorroto delituekin harremana duten gertakariei buruzko txosten”](#)ak jasotzen duen arabera, 27 izan ziren Euskadin egindako salaketak Indarkeri LGTBI+fobikoagatik.

Ordea, hori da dagoen informazio guztia, ezinezkoa izanik zenbat izan ziren gazte salatzaileak.

LGTBI+ Behatoki propio baten gabezia Euskadin informazio gehiagoren lorpena zailago bilakatzen duen faktoreetako bat da. Izan ere, salaketa juridikoen zifra txikia dirudien bitartean, ez dira ezezagunak bazterketa eta indarkeria LGTBI+fobikoko beste egoera batzuk, adibidez, berdinen arteko indarkeria hezkuntza testuinguruan.

## **Beharrezko gogoeta bat**

Izena duenak izana du. LGTBI+fobiak ez badu delitu bezala gorroto delitu bezala atal konkretu bat ez badu edo alde batera uzten bada, gertakariak ez dira salatzen, aipatzen ezta partekatzen ere.

Ia urtebetean zehar EGK-k jaso dituen eraso salaketa guztietatik ia gehiengoa salaketa publikoak izan dira. Gainera, ez dira LGTBI+fobia egoeren salaketa bakanak izan gazteen artean. Bazterketa egoerek ere leku gehiago aurkitu dute salaketa publikoetan juridikoetan baino.

Bai administrazioetara bai parte inplikatu guztietara nahiezean gogoetara eraman behar gaituen gertakari bat da hau. Gazteek gizarte salaketan edo salaketa publikoan juridikoan baino erabilgarritasun gehiago aurkitzen dutela baitirudi.

## **EGK eta Aniztasunarekin duen konpromisoa**

Berdintasun lan-arloaren berreskuraketaren urtebete ondoren, Kontseiluak baditu jada abiapuntu, eredu eta pizgarri izateko helburuarekin jaio diren bi proiektu ondoko ideia dutenak oinarri: **Aniztasuna kontuan izatea zeharkako balore bezala Berdintasunaren balorearekin batera.**



### **Gune Anitza**

2016an Aniztasunari dagokionez ikuspegi positibo batetik garatutako lehen proiektua izan zen zigilua. Gazteentzat eta gazteez osatutako espazioez erabilia izateko gizarte izaerako zigilua da, emakume eta gizonen arteko Berdintasun eta Aniztasun baloreak zeharkako izatearekiko aldeketasuna erakusteko.

2017an, Nazioarteko Harrotasunaren eguna medio, EGK-k Gune Anitza zigiluaren oinarritzko dokumentu berria argitaratuko du, espazioen kudeaketarako balio izango duena.

### **Sexualitatearen Koloreak**

Bizkaiko Foru Aldundiarekin dagoen hitzarmen markoaren barruan, EGK-k 'Sexualitatearen Koloreak' gida aurkeztu zen 2017ko martxoaren 22an. Ideia teoriko eta praktikoak dituen gida bat zeinetan erreferentziazko baliabide materialak ere badauden esku-hartzeak egiteko edota Aniztasunaren balorea txertatzeko hezkuntza prozesu oso batean.

Gida hau ondoko estekan aurki daiteke:  
<http://bit.ly/2mTT9Z4>



## **EGKren hobekuntza proposamena**

Gaurko egunean ezinbestekoa da EGKren proposamenak gogoraraztea Aniztasunean eskubide berdintasun osoarekin. Hau dela eta, gaurko egunean oroitu nahi ditugu ez soilik gaurko egunerako konkretuki jasotako proposamenak, baita beti gogora ekartzen dituguna Indarkeria LGTBI+ fobikoaren aurrean:

### **2017rako proposamen konkretuak**

- **Trans\* despatologizazioa eta beraien errealitatearekiko akonpainamendua**

Dokumentazio ofiziala aldatu nahi duten Trans\* pertsonak oraindik patologizatuak dira hau lortzeko. EGKtik proposatzen da patologizazioa gelditzea, jada beste Autonomia Erkidegotan eta beste lurralde batzuetan egin den bezala.

Gainera, tratamendu hormonalen dituzten gazte guztiek ez dituzte beraien eskubideak ziurtatua. Trans\* pertsona gazte batzuek edo Gizarte Segurantzari dagoen aukera bakarra onartu edota proportzioan 100 aldiz altuagoa den kopurua ordaindu beharko dute proportzioan, 2016an egon zen Estatu mailako eskaintza aldaketarekin.

- **Amatasun eta aitatasun eskubide osoa**

LGTBI+ kolektiboko pertsonak zailtasun desberdinei aurre egiten diete familia bat eraikitzeke nahi dutenean. Adopzio prozeduraren konplexutasun gehigarriak, beste bide batzuk erabiltzeko ezintasun legalak... guzti horiek familia bat sortzeko eskubidearen urritzea eragiten dute.

- **Lan-munduan bazterketa eza**

Jazarpenera iritsi daitekeen tratamenduetan gertatzen den bezala, LGTBI+ fobia lan munduan igarri daiteke eta pertsona asko, gazteak barne, era ireki batean ez hitz egitearen aukera hartzen dute errepresaliak ekiditearren. Identitate, izaera edo orientazioagatik edozein ondorio izatearen beldurra onartezina izan behar da eta jasotzen diren salaketak lan eskubideen arloko beste edozein salaketa bezala hartuak izan behar dira.

- **Bizitza pribatuaren garapen askea**

LGTBI+ kolektiboaren parte izaterakoan, esparru publiko eta erdi-publikoaren erronka bat da baita Euskadin ere. Hau errealitate zaharkitu bat da gazteen beharrekiko, jada urteak daramatzatela ikusgaitasuna eta onarpen erreal bat eskatzen.

## Salaketa protokoloan jasotako proposamenak

Oraingo egoeraren analisia zela eta Gaur8 lantaldeak garatutako proposamen hauen ostean, EGK-k eraso bakoitzaren ostean gogorarazten dituen proposamen orokorrak jasotzen dira jarraian:

Alde batetik, Administrazioari:

- **Harrera juridikoari** dagokionez:
  - **Tratu, neurrien ezarpen eta kontrolaren hobekuntza**; hauek biktimaren ongizate integral bat bidera dezaten.
  - **Legediaren aldaketa**: Estatu mailan 1/2015 Legearen 22.4 artikulua da delitu hauen esparrua garatzen duena eta Euskadi mailan 14/2012 Legea aipa genezake.  
Ordea, zeharkakotasuna LGTBI+ kolektiboa erasotzen dutenei zigortzeko eraginkortasunarekin bat doala uste dugu. Hau dela eta, beharrezkotzat jotzen da Indarkeria sistematiko hau bere testuingurutik aztertzea eta tratatua izatea baimenduko duen lege bat.
- **Prebentzioari** dagokionez:
  - **Hezkuntzatik hasi**. Kasu honetan begirada integralagoa ezinbestekoa da.
    - Alde batetik, hezkuntza sozializazio prozesu bezala ulertu beharra baitago.
    - Bestetik, beharrezkoa den hezkuntzari dagokionez. Aniztasuna, hezkidetzaz, heziketa sexuala, adimen emozionala,... eskutik eta era sakon zein zeharkako baten landu beharrekoak dira.
    - Gainera, gizarte eragile guztiak barne hartu behar ditu.
    - Sentsibilizazio kanpainak eta bestelako inpaktu ekintzak burutzea.
  - **Ikerketak eta datuak**. Prebentzio neurrien diseinuaren hobekuntzari begira ikerketak eta datu anitz zein luzetarakoak beharrezkoak dira.
  - **LGTBI+ behatokia sortu**. Egun ez daukagu aukerarik ez eraso ez aniztasunaren gainean informatzeko (Behatoki integralik, Behatoki bateren sailik,...) eta hau ezinbestekoa zaigu. Ezinbestekoa zaigu kolektiboak bizi dituen bereizketa mota guztiak ezagutzeko eta bere eskubideen alde egiteko Behatoki bat sortzea.
- **Arazoaren trataerari** dagokionez:
  - Bereizketa faktore anitzen intersekzioaz eta honen inpaktuaz arduratzea ezinbestekoa da.

Bestetik, gazteriarri:

- **O Tolerantzia eta inplikazioa**
  - Erasoen aurrekari diren jarrera LGTBI+fobikoei fretoa bota\*\* eta hauen larritasuna ulertu: gorrotoak mugituak dira
  - Erasoen testigu izatean, ez isildu, ekin eta luzatu laguntza biktimari



- o Biktima bazara, zure bizitza berreraiki dezakezu eta horretarako, izan ezazu argi, zurekin gaude.
- **Indarkeria LGTBI+fobikoa eta honen sustrai diren beste indarkeria eta jarrearen aurka ekin**
  - o Norbere burua eta ingurugiroa kritikoki aztertu eta eraldatu aniztasunaren ideiarekin
  - o Indarkeria LGTBI+fobiko edota honen ideologiarekin harremana izan dezaketen Indarkeriei aurre egin (Indarkeria Matxista, maitasun erromantikoan oinarritutako bikoteen arteko indarkeria,...)
- **Aniztasunarekiko konpromisoa eta gizarte eraldaketa.** Kontuan izan Indarkeriaren sustrai estrukturala eta honen gainean ekin. Aniztasunean bizitzea eskubide berdintasuna izanik guztion artean lortuko dugun zerbait da eta!

Indarkeria LGTBI+fobikoa aurkeztu zaigun era latz honetan ideologia patriarkala eta cisheterosexistaren alderik ikusgarriena da; bitartean, iceberg-a balitz bezala, milaka eguneroko jarrera eta portaera daudelarik ere ezkutuan. Hauek ez dute soilik LGTBI+ kolektiboaren eskubideen aurka egiten, baita norberak bere baitan duen aniztasun eta bizipen konkretuen garapenaren eskubideari ere.

Pentsamolde eta ekite hauek ez dute baimentzen aniztasunerako eskubidea ziurtatua egotean eta elkarbizitzan eta elkar aberastean oinarritzen den gizarte eta gazteri bat eraikitzea.

Hau dela eta, gertatutakoaren salaketa honen bitartez Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak gazterian ere ematen den LGTBI+fobia salatu eta aniztasuna ez soilik onartua, baizik eta bermatua eta sustatua den gazteriaren eraikuntzan bere konpromisoa berretsi du.